# *Parke izena edukitzea, hortxe dago azaroa!*

*NATURGUNE konkretu bat Parke izendatzearen lehen helburua, aukeratutako naturgune horretan esistitzen den oreka etorkizunari begira mantentzea izaten da, eta hala behar izango balitz hobetzea; oreka hori ordurarte oinarriturik egon da, alde batetik, berezko natur elementuetan eta bestetik, naturguneak Parke Naturala izendatua izatean zuen oreka horri, akastuna agian berau, jarduera konkretu batzuren bitartez lagundu izan dion giza-presentzia tradizionalean.*

*Populazioaren aldetiko gozamen ludikoa bigarren mailako helburua da, naturguneari presentzia arrotzak, ez integratuak ematen bait dizkio, gozamen horrek inguruan eragin negatiborik izan ez badu ere tamainako proportzionaltasuna gorde izan duen bitartean.*

*Baina azken hamarkadek, komunikazioen azpiegituren hobekuntzari eta automobilaren masifikazioari esker; erakundeen afan ekonomizistari eta gizartearen neurrigabeko kontsumismoari esker; natura-turismoa, abentura-turismoa edo baserri-turismoa direlakoen aurkipenari esker (gure artean honen oraintsukoak, eta Europaren gainerakoan hain aspaldikoak), halako jendetzak zuzendu dituzte naturarantz ezen gaur egun dauden orekak -hauskorrak, askotan- puskatu edo eta guztiz suntsitu ere egiten diren.*

*Aralarreko Parke Naturala sortu baino ez da egin eta ba dugu Udal bat (ikus Eguzkiren salaketa Pyrenaicaren ale honetan bertan) Parkearen espirituarekin nabiriki adostezina den proiektu bat gidatzen, Parkearen mugen barruan bilakatu nahi bada behintzat. Eta pixka bat haruntzago joanda, ¿estudiatu al da sakonki Lizarrustin ailegabibe masibo berri bat zabaltzeak eta bultzatzeak Aralarrentzat suposatu dezakeena?*

*Parkeek duten arazorik grabeena, izen hori edukitzea da izan ere, zeren Parke naturala izendatzearekin batera halako publizitate-kanpaina, halako marketinga garatzen da ezen natur ingurugiroarekin batere harremanik ez duten haiek ere Parkea bisitatzera bultzatuak izaten bait dira, honen guztionen ondorioak, masifikazioa dela eta, arriskuzkoak, eta zorigaitzezkoak batzutan, gertatzen direlarik, eta gainera ondorio horiek gero eta epealdi laburragotan ematen direlarik. Parkeak direlako mezua zabaltzen baino ez da hasi eta ba ditugu arazoak Valderejon, Urdaibain, Urkiolan, Gorbean. Publikoki Parke bezala aurkeztua izan baino lehen ere, atzematen da ekaitza Aralarraren kasuan.*

*Ez diezagutela esan natura itxi nahi dugunik, batzuk baino ez gozatu dezagun. Gogoratu egin nahi dugu, bai horixe, natura Parke Naturalak baino askoz ere gehiago dela, eta beharbada hauxe dela momentua aparkaletutik gertu instalazio-mota desberdin batzuk zituzten eta populazioaren gustokoak ziren semihiriko parke haiek berriro bultzatzeko, eta ez gaitezen abiatu "koroaren harribitxiak saltzera" koroarik eta harribitxirik gabe geratzeko arriskuan bait gaude.*

*Orain dela 20 urte Pyrenaicak behin eta berriro azaldu zituen Alpes mendien inguruetako herriek gai hauen inguruan egiten zituzten planteamenduak: natur aberastasuna eta beronek suposatzen zien etekin ekonomikoa etorkizunerako mantentzeko prest zeuden. Ematen du guk ez dugula oraindik irakaspena ikasi.*

# Llamarse parque, ¡he ahí el problema!

EL objetivo prioritario de la calificación como Parque de una determinada zona natural es el de mantener, mejorar si hiciera falta, de cara al futuro el equilibrio existente en el conjunto seleccionado; un equilibrio basado en los propios elementos naturales y en una presencia humana tradicional que mediante determinadas actividades ha contribuido al equilibrio, quizás imperfecto, que el conjunto tiene cuando es declarado Parque Natural.

El disfrute lúdico por parte de la población es un objetivo secundario puesto que aporta al conjunto presencias extrañas, no integradas, aunque tal disfrute no ha llegado a incidir negativamente en el entorno mientras ha guardado una proporcionalidad razonable.

Pero los últimos decenios, merced a la mejora de infraestructuras de comunicación y a la masificación del automóvil; merced al afán economicista de las instituciones y al consumismo desmedido de la sociedad; merced al descubrimiento (entre nosotros tan reciente pero tan viejo en el resto de Europa) de los llamados turismo de la naturaleza, turismo de aventura o turismo rural, han creado unas tales corrientes humanas hacia la naturaleza que los equilibrios existentes- frágiles en muchos casos- se quiebran o llegan a destruirse por completo.

Apenas acaba de crearse el Parque Natural de Aralar y ya tenemos a un Ayuntamiento (véase la denuncia de Eguzki en este mismo número de Pyrenaica) liderando un proyecto a todas luces incompatible con el espíritu del Parque si se pretende desarrollarlo en el interior de sus límites. Yendo un poco más allá: ¿Se ha estudiado en profundidad lo que puede suponer para Aralar abrir y promocionar un nuevo acceso masivo en Lizarrusti?

El problema grave para los parques es que les hayan bautizado con ese nombre porque simultáneamente se desarrolla tal campaña publicitaria, tal marketing que hasta las personas más ajenas al medio natural se ven impedidas a visitarlo, con unas consecuencias debido a la masificación que se demuestran de riesgo, cuando no nefastas y además en plazas de tiempo cada vez más cortos. Apenas han comenzado a darse a conocer como Parques y ya tenemos problemas en Valderejo, en Urdaibai, en Urkiola, en Gorbea; antes incluso de presentarse públicamente como tal, ya amenaza también la tormenta en Aralar.

Que no se nos diga que queremos cerrar la naturaleza para disfrutarla unos cuantos nada más. Queremos recordar eso sí, que la naturaleza es mucho más que los Parques Naturales y que es quizás el momento de volver a promocionar aquellos parques semiurbanos con cierto tipo de instalaciones a pie de aparcamiento y a satisfacción de buena parte de la población y nos lanzamos a "vender" las joyas de la corona aun a riesgo de quedarnos sin joyas y sin corona.

Hace 20 años Pyrenaica se hizo eco reiterativamente de los planteamientos que los pueblos del entorno de los Alpes hacían sobre estos temas dispuestos a preservar para el futuro tanto la riqueza natural como el beneficio económico que ella les aportaba. Pareciera que nosotros aún no hemos aprendido la lección.